



Ana Urchueguia alkateak egin zuen Rodolfo Ares barne sailburuaren aurkezpena.

Ares PSOEren egoitzan

Barne sailburuak hitzaldia eman zuen ostiral arratsaldean
Ana Urchueguia alkateak lagunduta 30 lagunaren aurrean

Rodolfo Ares barne sailburua Lasarte-Orian izan zen ostiral arratsaldean. Iluntzeko 19:00etatik aurrera hitzaldia eman zuen PSOEren egoitzan 30en bat alderdikideren aurrean une politikoa eta Gobernuan daudenetik izan diren aldaketei buruz. Ana Urchueguiak egin zuen aurkezpena eta hitzaldian izan ziren besteak beste Inaki Mugica, Lourdes Acevedo eta Jesus M. Zaballos zinegotziak ere.



Giro alai eta hotz izugarria inauterietan

Iragarrita zegoen bezala, hotz izugarria izan dugu asteburu honetan herrian. Hala ere, inauterietan ondo pasatzeko asmoz ziren herritarrak ez ziren bildurto eta elegante mozarrotuta kalera irten ziren. Asteburuko ekitaldien berri eta argazki ugari inauterietako gehigarri berezian.

3. orritik aurrera

Lasarte-Oriari buruz maitasunez idatzitako kontakizuna

Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kulturetxeko hitzaldi aretoa, ostirala arratsaldean jendez gainezka zegoen. Jose Luis Navaroren *Relato breve de Lasarte* liburuaren aurkezpena zen horren arrazoia.

Jone Altuna, Kultura Saileko buruaren hitzetan, "Lasarteri buruz maitasunez idatzitako kontakizuna eta opari paregabea" da liburua.

Eta honetaz gain, istorio honetako familiaren berri eman zuen, baita bertan agertzen den *Krimenen etxearen* txikitako oroitzapenak ere

aipatu zituen Kultura Saileko buruak.

Relato breve de Lasarte idatzi duen hirugarren liburua izan arren, urduri agertu zen Jose Luis Navarro aurkezpenean. Familiari egindako eskaintza aipatu eta liburua idazten lagundu dioten lagunei eskerrek eman ostean, liburuaren nondik norakoak azaldu zituen.

Era berean, herriari buruzko bibliografia handitzeko egiten zuela ere adierazi zuen aurkezpenean, baita gaitasun handiko gazte jendea dagoela herrian



lan honekin jarraitzeko ere.

Gerturatutako guztiei esker eman zizkien idazleak, "Dan Brown edo Larsson

idazleen antzera sentitzen naiz orain. Baina ziur nago haien aurkezpenetara doan jendeak ez duela zuek

duzuen kalitatea," esanaz.

Eta ekitaldia *Relato breve de Lasarte* liburuaren sinaketarekin amaitu zen. •



GURUTZETA SAGARDOTEGIA

SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU,
EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI

ZATOZ
TXOTX EGITERA!

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATUREALEAN

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com

OMENALDIA

Terrorismoaren biktimen oroimenezko ekitaldia eguerdian

Gaur eguerdiko 12:00etan Lasarte-Oriako Udalak terrorismoaren biktimen adorea eta zorigaitzaren aurrean izan duten duintasuna aditzera eman nahi du.

Era honetara, Udal Batzar aretoan, musika eta hitza izango dira nagusi, oroigarri banaketa ere egingo da; Udaletxearen sarreran, berriz, bi plaka desestaltiko dira.

Udaletxean antolatu den ekitaldira, Udal korporazioko kideekin batera ekitaldian, besteak beste, Barne-Arazaetako Ministerioko, Gobernuko, Eusko Jaurlaritzako, Terrorismoaren Biktimen Aldeko Bulegoko eta Gipuzkoako Batzar Orokorretako ordezkariak egingo dira. •

EUSKARA

Matrikulatzeko aukera berria Buruntzaldeko euskaltegitan

Buruntzaldeko udalek, eskualdeko euskaltegi guztiekin batera, herritarrei gogorarazi nahi diete, *Zu bai zortea!* kanpainarekin aukera paregabea dutela eskualdeko herrialdeetako edozein euskaltegitan matrikulatzeko. Izan ere, ordutegien aukera oso zabalak baita eremuko euskaltegietan, baita ikasmalena ere.

Euskaltegi bakoitzaren eskaintzaren berri euskara.buruntzaldea.org web gunean ikus daitekeela gogorarazten dute. Web orrialdean bertan, gainera, bakoitzak bere euskara-mailaren gutxi gorabeherako erreferentzia emango dion automailaketa egiteko aukera dago oso modu sinplean.

Era berean, Udal bakoitzak euskara ikasten diharduten herritarrentzat dituen diru-laguntzak orrialdean bertan kontsulta daitezke.

Otsailen zehar, matrikula irekita dago eremuko euskaltegietan. Lasarte-Oriako euskaltegiekin harremanetan jartzeko hurrengo telefono zenbakietara deitu behar da, Munterri AEK euskaltegia, 943 372 863 eta Lasarte-Oriako udal-euskaltegia, 943 361 621. •

VI. ZINEMA SOZIALA

Literatura eta gizartea aztergai gaur

Balzak y la joven costurera china, hori da gaur arratsaldeko 17:30ean, Danok Kide elkarteak antolatzen duen VI. Zinema Sozialaren bigarren jardunaldian ikusiko den filma.

Gaur literaturak gizartean duen eragina eta garrantziaz hitz egingo dute saioan eta horretarako M^a Carmen Perez, Manuel Lekuona kultur etxeko Literatura tailerreko zuzendaria, gonbidatu dute. •

LANAK

Azkorte bideko norabide bat itxia

Saneamenduko kolektore interzeptore orokorreko obrak direla eta, gaur Azkorte bidean lanean hasiko dira, Oria etorbideetik Bidebitarte baserri ondoko errekaraino.

Obrak lau astetan zehar luzatuko direla aurreikusten da, horregatik, denbora horretan, Azkorte bidearen hasieran errepidearen alde bat itxita egingo da eta trafikoa modu alternatiboan erregulatuko da behin-behineko semafoerekin.

Era berean, Udalak jakin arazten du, Tribunak kaleko bizilagunengan ere eragina izango dutela lan hauek eta Azkorte bide-rako sarbidea semafoeren bidez erregulatuta egingo dela. •



Auto-zirkuitua gogoan

Herriko auto-zirkuituari eta bertan egindako lasterketei buruzko argazki erakusketa inauguratu zuten ostiralean Manuel Lekuona kultur etxeko erakusketa aretoan.

Udal ordezkariak eta herritar ugari bildu ziren erakuske-

ta hau osatzen duten 85 argazkiak ikusi eta garai haiek gogoratzeke.

Donostiak, Gipuzkoak eta Euskadik 1923. eta 33. urteen artean izandako garrantzi turistikoaren irudi ahaztezin bat eskaintzen digu erakuske-

ta honek, baita gure herriko historiaren zati bat ere.

Kutxa Fototekako Fondoak antolatutako erakusketa astelehenetik ostiralera arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara egingo da zabalik, otsailaren 26ra arte. •

EAJ-ak 2010. urteko aurrekontuak aurkezteko eskatuko dio Udalari

EAJ alderdiak otsailaren 5ean, mozio bat aurkeztu zuen Udaletxeko erregistroan, hurrengo udalbatzan eztabaidatu, akordio batera iritsi eta onartzeko.

Honetan, gobernu taldeak 2010eko aurrekontuak, hila-bete bateko epean, aurkeztu ditzala premiatuko du.

EAJk mozioan azpimarratzen duenez, "erakunde bat zuzendu eta herriaren dirua kudeatzen duten guztiak bete-behar nagusi bat dute, besteak beste: aurrekontu proiektu bat egin eta aurkeztea."

"Gobernu taldeak ez zue-nez 2009an aurrekontu proiekturik aurkeztu, 2008tik

luzatutako aurrekontuekin jardun behar izan dugu, nahiz ekitaldi hartako aurrekontua ez zen % 60an ere gauzatzera iritsi, eta 3,5 milioi inguruko defizitaz amaitu zen," salatzan du alderdi jertzaleak.

"Iazkoaz betebeharraren bezala, aurtengoaz ere betebeharraren zuzen gobernu taldeak, hau da, 2010eko aurrekontu proiektua aurkeztea, 2009ko abenduaren 31 baino lehenago," atxikitzen du mozioan.

Egoera jasanezina

EAJ alderdiaren ustez egoera jasanezin batean dago Udala, "2008ko aurrekontu luzatu

eta guztiz irrealen jokatu behar baitugu, kontuan hartuta, gainera, udala egoera ekonomiko guztiz larri batean murgilduta dagoela."

Egoera honetan, ezinbestekotzat dute "2010erako diru sarreraren eta gastuen aurreikuspen zehatz bat egitea, bizi dugun errealitate ekonomikora ahal den erarik egokienean moldatzeko."

Hau guztiagatik alderdi jertzaleak lehenbailehen Udalbatza deitza proposatzen du.

Eta, era berean, Ogasun Batzordearen bilera-deia egitea, 15 eguneko epearen barruan, 2010eko aurrekontuak azter ditzan. •

DAKARA JATETXEA

Especialitatea hostopiletan Errazioak

Entsaladak Ogitaratekoak

Ez geratu ostegunetako gure nazioarteko afariak probatu gabe !!

Eguneko menua

asteartetik ostiralera

Kale Nagusia 8 behea • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 575859



Inauteriak Lasarte-Oria 2010

Fernández
e h u n a k



Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA

INQUIETUD



Neurriak 36tik... 60ra

Nagusia 49
Tel.: 943 370 290



SUGATE SUKALDEAK




FORMA • Gremioen koordinazioa
7 GARANTIA • Ordenadore bidezko diseinua
12 • Konpromisorik gabeko aurrekontuak
vegasa • Horma- armairuak
 Marka guztietako etxetresna elektrikoak

Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net



Landaberri ikastolako txikienek Euskal Inauteriak ospatu zituzten.

Mozorro ilada ikusgarria

- Irudimena eta festarako gogo nabarmendu ziren larunbatean
- Ehundaka herritarrek hotzari aurre eginez parte hartu zuten inauterietako desfilean



Sasoeta-Zumaburukoek kaldereroak ospatu zituzten.

Lauteriei ongi etorria ematen lehenak haurrak izan ziren ostiral arratsaldean. Herriko ikastetxeetan, urtero bezala, jaialdi politik antolatu zituzten.

Landaberri ikastolako txikienek Euskal Inauteriak ospatu zituzten eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeok berriz, kaldereroak.

Larunbatean berriz, desfilearen eguna izan zen. Herriko hainbat talde eta elkarte bildu ziren, bigarren urtez, denak batera desfilean ateratzeko herriko kaleetan zehar. Aurten gainera, herriko tal-

deez gain, Oriako txaranga ere atera zen desfileak kaleak alaitzeko asmoz.

Hotza protagonista

Iragarrita zegoen moduan, hotz izugarria egin zuen larunbat arratsaldean. Bakoi-tzak ahal zuen moduan egin zion aurre hotzari, batzuk arropa asko jantziz, mozorro beroa aukeratzuz, dantza eginez... Baina bildutakoak, hirurehun lagunetik gora, ez ziren bildurtu eta desfilean parte hartu zuten inauteriak gozatzeko eta ondo pasatzeko asmoz. •

TABERNA Buenetxea KAFETEGIA

WANTED
\$80,000
¡PELIGROSA!

WANTED
\$1,000,000
¡MUY PELIGROSA!

WANTED
\$90,000
¡PELIGROSO!

WANTED
\$20,000

KAFE BEREZIAK:
IRLANDESA
ESKOZESA
KAPUTXINOA
BONBOIA

WANTED
\$6,000

Txokolatea
txurroekin

Ezkontza ondorengo festa
luzatu dezakezu gurean.
Erreserbatu lehenbailehen

PROBATU AL DITUZU GURE GOSARIAK?
TOSTADAK
KRUASANAK PLANTXAN
.....

Pintxo beroetan
aukera zabala

WANTED
\$5,000

**Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508
LASARTE-ORIA**



40 URTE ZUEKIN!

ANAIAK

JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386



Emakumeen Zentro Zibikoko kideek Charleston dantza menderatzen dutela erakutsi zuten.



Erketz Dantza Taldekoek munduko dantza ezberdinen erakustaldi ederra eman zuten.

Hotz handiari aurre eginenez, jende ugari bilduzen Iñigo de Loiola kalean desfilean parte hartzeko asmoz. Giro alaiean eta ondo pasatzeko asmoz, ehundaka lagun ibili ziren herriko kaleak alaituz desfilean.

Desfilean lehenak Emakumeen Zentro Zibikoko emakumeak ziren, Charleston dantzatzu. Jarraian Erketz Dantza Taldeko Munduko Dantzen konpartsa zioan, hauek ere koreografia ederra bezain alaia dantzatu zuten. Ondoren, Ttakuneko Filmeak konpartsa, bertan 101 dalma-

ta, Chanquete, Grease, Mary Poppins, Palomitak, Superheroiak... ikusi ziren. Jalguneko lagunek Zazpi andregai zazpi anaientzako filma irudikatu zuten. Udal Musika Eskolakoak ere Superheroi bihurtu ziren.

Desfilea itxiz, Oriako Txarangako lagunekin batera, Zakilixut taldeko Bikingoen konpartsa izugarria eta Zabaleta Auzoko konpartsa, Marrazoa filmeko protagonistak!

Desfilearen ostean, Ttakuneko konpartsa kideen ekitaldiak ikusi ziren frontoi berrian.

www.txintxarri.info
web atarian
dituzue ikusgai eta eskuragarri inauterietako argazki gehiago



Ludotekako haurrek goxo-goxo zeuden moztorra horiekin!



Greaseko kideek erakustaldi polita egin zuten, azkenean frontoi osoa kantari jarri zuten!



Kastina egitera etorri zen antzerki taldeak striptease berezia eskaini zuen!

SANCHO TABERNA

HITZARTUTAKO
eta
TALDEENTZAKO
MENUAK

OGITARTEKOAK

PINTXOAK

PLATER KONBINATUAK

EGUNEKO MENUA

KAXUELA, PINTXO ETA
MORUNOETAN
ESPEZIALIZATUA

Oriamendi enparantza 1 behea · Lasarte-Oria

Tel.: 943 372075



Zineman ezinbestekoak izaten dira palomitak! Desfilean ere bai!



Jalgunekoek emanaldi politta eskaini zuten, lortu zuten anaiak eta andregaiak elkartzea!



Udal Musika Eskolako taldeak ederki girotu zuen desfilea!



Txankete ez zen bere txalupatik mugitu!



Pelikula ederra grabatu zuten azkenean bi zuzendari hauek!



Desfilean ez zegoen zertan kezkatu, arazoei aurre egiteko Superheroriak zeuden!

ABEND
KAFE-ANTZOKIA

EGUNEKO MENUA
DANTZA
BOKATAK
KONTZERTUAK
.....

Gogeko Sak arte irekita!!

Pablo Mutiozabal 5 • Tel.: 943 372089
LASARTE-ORIA



Mary Poppinsek ere ez zuen desfilea galdu nahi izan. Bejon deizuela kuadrilla!



Eskerra Zabaleta Auzoko konpartsako marrazoa ez zen filmekoa bezalakoa!



Oriako Txarangaren lagunek herriko kaleak alaitu zituzten desfileareki batera.



Zakilixut taldeko bikingoen konpartsan haurrek eta helduek ederki gozatu zuten!

Maite **B**ETELU



- B** Gestoria
- B** Aholkularitza
- B** Inmobiliariako zerbitzuak
- B** Aseguruak
- B** Etxebizitzen administrazioa



Aralar plaza 4 eta 6, behea • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117



Bideo Lagunak



BEGIRATU GURE ESKAINTZAK !

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

kima

masaje-lexua

Goyo Martin
Xabier Carbayeda

Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197
LASARTE-ORIA



Ditlo festa egon zen Andatza plazan goizaldeko ortu txikiak are.

I.BURRIZOLA

ARROZTEGIA

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.



Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatekarean ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA

BERTAKO FABRIKAZIOA

Odolkilar - Solomo ontzibuta
Basurde burua

Tripakkiak - Salkixiak
Eheko txiztoia
Txisiorra

ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi Barmen kalea 3 • Tel.: 943 361278 • 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria



Umore bikaina emakume kuadrillak honetk duenak!



NOSeko astronautak ere Lasarte-Oria ihili ziren.

“ Herriko taberna asko zeuden aurtun dekoratuta, eta horrek oso giro ona sortu zuen herrian



Hauak ere telebista-koak bazal, botera, genua diru haundun? Eskernak inauterak ditren..

ETXEZARRETA HARATEGIA

Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379
LASARTE-ORIA

SAIZAR

Betikoa Sagardoa

Kale Zahar Alcoa, 39
GURE BURLA
Tel.: 943 362 228
Fax: 943 366 412
e-mail: adreiria@sidrassaiizar.com
WWW.SIDRASSAIIZAR.COM

EPEL

TXERRI-BELARRI GUTIZIAZ/OKAK ETA OLAGARROA

AUKERA IZUGARRIA

- pintxoetan
- razioetan
- ogitar-tekoetan
- plater konbinatuetan

Goikale 1 • Tel.: 943 362701 • LASARTE-ORIA

Gauean giro ederra

Irudimen handiko mozorroak ikusi dira aurtun herrian

Aurtun desfile bateraturako Filmen gaia proposatu zizaiton herriari. Egia esan nahiko gaitz zabala da, kontuan izan behar dugu marrazki bizidunak ere zaku berean sartu daitezkeela. Horregatik edo jendeak ondo pasatzeko gogoia zuelako edo, aurtun herriari ugari atena zen mozorroentziko kalera. Egunez, desfilea medio, jendea goizago zebilen mozorroentziko batez ere harritak dituztenak. Baina gazteak normalean izango dituzte gaurnik aukera gainerako argazkiak



Tin Burronen 9' filmeko pampinak ere bistan etorri ziren Lasarte-Oria.

MAITE

ESTETIKAKO ABETOA

oto depilazioa amj, pult-satuamekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputsetako tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Bisitin Kalea 2/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



Mosketero kuadrilla ederra topatu genuen larunbat arratsaldean.



Tximeleta bereziak, gauze ere ateratzen direnak!



Kontuz, txintxetekin harrapatuta geratu gabe!

“ Larunbat gauean denetarik topatu ahal izan genuen herrian, Marx anaiak, gans-terrak, andre-gai hilotza, zineko izar handiak...



Groucho eta Harpo, Marx anaiak ere topatu genituen.





ASEGURUAK

Ges

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoa

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...

Pablo Mutiozabal kalea 2 • Tel.: 943 365899/943 368575 • cristina_arteaga@ges.es • LASARTE-ORIA



InmoGes

Inmobiliaria





Kale Nagusia 12-3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376662




ELEKTRIZITATEA

ARREGUI

- Material elektrikoa
- TB/HI-FI
- Argiak
- Instalazio elektrikoak
- Etxetresna elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

Tabernak ere koloretzu jantzi ziren okasiorako

Aurten inoiz baino taberna gehiago dekoratu dituzte, eta horrek lagundu du herrian giroa sortzen.



Elegante zegoen Dakara taberna, Oskar saria eta guzti.



Sustrai taberna gaztelu batean bihurtu zuten.



Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.:943 372668 Faxa:943 370737
patxilarranaga@telefonica.net
www.patxilarranaga.com

**NAROA
PATXI LARRAÑAGA
ANA IPARRAGUIRRE**

SAN JOSE-OLAIZ



- Kamioien txasia konpontzeko oinarria.
- Industriako ibilgailuen konponketa.
- Aluminiozko eta burdinazko soldadurak.



LOMBARDINI

IVECO

ZERBITZU OFIZIALA



DIMETAL S.A.

Ordutegia: 8:30 - 20:30

Zirkuitu ibilbidea 6 • 20160 LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361857 • Faxa: 943 366508



Obelix tabernan gansterrak ziren nagusi!



Tim Burtonen filmografiako irudiekin dekoratu zuten Jalgi kafe-antzokia.



Insausti tabernan dinosauroak azaldu ziren!



Buenetxea tabernak berriz, iraganera egin zuten salto.



aldaz
hortz klinika · clínica dental

Klinikan %15eko deskontua inplante tratamenduetan

* Beste deskontuei eta sedazioari ezin zaio gehitu deskontu hori. Tratamendu berrietarako eskaintzak 2009/02/01etik 2009/05/01era arte balio du.

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisalign" ortodontzi ikusezina
- haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-PADI)
- pazientearen irribarra sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziazioa 18 hilabete arte

%15eko deskontua* inplanteen tratamenduetan

* Martxoaren 30era arte



Deitu gure zerbitzua ezagutzeko
943 366 377

Ola kalea, 10 San Bartolome, 22
Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870
www.dentalaldaz.com



HARATEGIA



BALERDI

URDATEGIA



Geltoki Kalea 15 behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376585





Nagusia 36, behea 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 04 46



Nagusia 50, behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 36 11



Ingandean Euskal Inauterien txanda izan zen. Goizean eta arratsaldean, bi txandatan herriko kaleak alaitu zituzten musika eta dantzekin. Larunbatean bezala, ateri, baina izugarritzko hotza egin zuen. Ohiturari jarraituz, artza ere erre zuten, Okendo plazako lanak medio, Kale Nagusian erre zuten aurtengoan.

• EUSKAL HERRIKO SUKALDARITZA

- JANGELA EGOKI-EGOKIAK, EZKONTZAK, JAUNARTZEAK ETA BESTE EDOZER OSPATZEKO
- ETXEKO ESPEZIALITATEA: PARRILLAKO ARRAINA ETA HARAGIA.

DANA ONA
JATETXEA

restaurante@danaona.com
ZUBIETA (Hipodromoaren ondoan)
Tel.: 943 365347 / 943 361731 • Faxa: 943 366020



JOSE AIZPURUA UNANUE S.L.
eraikuntzak



- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak

Obaba Kalea 29 • Asteasu • Tel./Faxa: 943 696 852 • Mobila: 620 800186



Egunero

Erakusketa

LASARTEKO AUTO-ZIRKUITUAREN argazkiak ikusgai erakusketa aretoan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Astelehena, 15

Zine soziala

BALZAC Y LA JOVEN COSTURERA CHINA filma eskainiko dute Danok Kidek antolatutako VI. Zinema Sozialaren Zikloaren barruan, eta ondoren Literatura eta Gizarteari buruz arituko dira. Hizlaria M^a Carmen Perez izango da. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:30ean.

Asteazkena, 17

Hitzaldia

Arantza Lorentzo dietistak JATEKO OHITURA DESEGOKIEN ONDORIOEI BURUZ hitz egingo du: diabetea, gizentasuna, kolesterol maila altua... Horiek saihesteko elikadurak duen garrantziak jardungo da. Herritar guztientzat sarrera libre da, ez soilik ikasleentzat. Udal Euskaltegian, 9:00etan eta 19:00etan.

EUSKARAZ.



*Sorpresaz beteriko bertso-saioa
Jalgin ostegunean*

Bertso-saio berezia izango da ostegunean Jalgin. Bertsoak kantatzen Unai Muñoz, Ane Labaka, Jon Martin eta Xabier Silveira izango dira. Gai jartzen, berriz Jon Altuna arituko da eta saioa girotzen Aitor Atxega.

Sorpresa ugari izango dira saioan zehar.

OSTEGUNEAN, HILAREN 18AN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN
20:30ETIK AURRERA, EUSKARAZ

Larunbata, 20

Antzerkia

MICROGLOBOPHONE haurrentzako antzerkia, Katraska konpainiaren eskutik. Keinuak ikuskizun irudimentsu eta dibertigarria. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 18:00etan.

Igandea, 21

Zinea

DONDE VIVEN LOS MONSTRUOS filma ikusgai haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ

Astelehena, 22

Zine soziala

LA JOVEN DE LA PERLA filma eskainiko dute Danok Kidek antolatutako VI. Zinema Sozialaren Zikloaren barruan, eta ondoren Artea eta Gizarteari buruz arituko dira. Hizlaria M^a Carmen Perez izango da. Kulturetxean, 17:30ean.

Osteguna, 25

Zinea

EL JEFE DE TODO ESTO filma ikusgai Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, 4,15 euro. Kulturetxean, 21:30ean.

Ostirala, 26

Hitzaldia

"LA SALUD A TRAVÉS DEL CUIDADO DE LA COLUMNA VERTEBRAL" hitzaldia emango du Juan Alonso kiropraktikoak. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan, GAZTELANIAZ.

Bakarrizketa

RUBEN ARROSPIDEREN bakarrizketa Xpression eta Gazteria sailak antolatzen duten Gazte ekimenean. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Kontzertua

U.K. BILL rock taldearen kontzertua Jalgi kafe-antzikian 23:00etan.

Larunbata, 27

Kontzertua

ANDALUZIAR EGUNA, otsailak 28, ospatzeko emanaldia eskainiko du Semblante Andaluz elkarteak. Kulturetxean, 19:30ean.

Igandea, 28

Zinea

IGELAK ETA ZAPOAK filma ikusgai haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ.

Oharrak

Marrakiz eta pintura eskolak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakiz eta pintura klaseak hasi dituztela dagoeneko eta oraindik izena emateko aukera dagoela.

Klaseak Manuel Lekuona kulturetxean izaten dira asteazkenetan eta ostiraletan arratsaldeko 18:30etik 20:30era eta larunbatetan, goizez, 09:30etik 11:30era.

Eskerrak eman solidarioei

Lasarte-Oriako parrokietak Misio taldeek Haitiren aldeko afari solidarioa antolatu zuten urtarilaren 23an. Bertan 4.300 euro jaso ziren, Mesedeetako Amen ordenaren bitartez Haitira bideratuko direnak. Antolatzaileek

eskerrak eman nahi dizkiete afarian parte hartu zutenei eta nahiz eta ez joan afarira, dirua eman zutenei. Haitik gure beharra duelako, mila esker.

6 Nazioak Errugbyko porra

Beltzak Errugby taldeak 6 Nazioak lehiaketako porra antolatu du. Saillkapeneko 6 postuak asmatzen dituzten artean, Jalai tabernan bi pertsonentzako afaria eta Zigako landa-etxean 2 pertsonentzako astrburu pasa zozketatuko dira.

4. jardunaldiara arte, hau da, martxoaren 13ra arte dago porra egitea.

Aldatzekua, Txema taberna, Gure etxea, Insausti, Ilargi, Jalgi, Txanpa, Xirimiri eta Udaberri tabernatan porrako

txartelak eskuragarri daude. Anima zaitzete!

Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatela jasota, argazki kamara, urrezko eskumuturrekoa, zilarrezko eskumuturrekoa, Seiko markako bi eskumuturreko erloju, Vice-roy markako eskumuturreko erloju, Massimo Dutti markako eskumuturreko erloju, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilarioa, Symbol markako makina, Nokia markako mugikorra, Festina markako eskumuturreko erloju, Suzuki markako motozikleta kaskoa eta zilarrezko belarritakoa.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:
Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zerua Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

LUIS CAR

autobusak



- Espainiako eta nazioarteko garratio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA




Jalgi

KAFE-ANTZOKIA



GELTOKI KALEA 4 BEHEA
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024



IZARRA BITXITEGIA

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384 • Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945



www.izarrabitxitegia.com

IPARJOY* A.I.E.

